


EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Europako ekonomia sentimenduaren indizeak nabarmen egin du hobera

Ekonomia sentimendua Eurogunean





2017ko amaieran baikortasun handia hauteman zen Europako ekonomia eragileen artean. Izan ere, Euro-par Batasuneko ekonomia sentimenduaren indizea 115,9an kokatu zen. Emaita hori hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar da serie historiko osoan, 1990ean hasi baitzen, jaso den baliorik gorena 2000ko maiatzean lortu zela eta 117,3 izan zela. Beraz, une hauetan indize horri ia hogeita hamar urtean eskuratutako mailarik gorena berdintzeko puntu bat eta erdi baino gutxiago falta zaiola. Eremuko herrialde guztiak baikortasuna eta ezkortasuna banatzen dituen 100eko baliotik gora daude. Alemaniaren kasuan, industriaren eta eraikuntzaren sendotasuna azpimarratu behar da eta Frantzia, berriz, zerbitzuek eskaintzen dute irudi onena. Bi herrialde horiek ia etengabe hobetu dute indizea 2016ko erdialdetik.

Ekonomia sentimendua Alemanian





Ekonomia sentimendua Frantzia



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Erresuma Batuko indizea 112,4an kokatu zen, aipatu diren bi potentzien zertxobait beherago, baina maila positibo garbi batean. Ez dirudi Brexitak eragin handiegirik izan duenik herrialde hartako ekonomia sentimenduan. Industriaren balorazioa oso altua da eta serie osoko datu onenetara hurbildu da. Aitzitik, hala kontsumitzailearen konfiantzak nola txikizkako merkataritzak oso balio apalak jaso zituzten.

Italiaren egoera eta Erresuma Batuarena antzekoak dira, abenduan Italiak 112,1eko balioa izan zuelako. Hala ere, kasu horretan hobekuntza hautematen da 2014ko eroraldiaren ondoren. Bereziki 2017. urtea konfiantzaren berreskuratzearena izan da, 2000tik inoiz jaso duen mailarik gorenetako batean dagoelako. Azpimarratzekoa da txikizkako merkataritzaren une gozoa, bere maximotik hurbil dagoelako. Aitzitik, gainontzeko atalek irudi baikorra, baina neurritsua, eskaintzen dute.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainiak zailtasunak ditu 110eko langa modu argi batean gainditzeko. 2015eko abenduan lortu zuen eta baita 2017ko urrian zein azaroan ere, baina abenduan pausu bat atzera eman zuen. Ekonomia horretako indargune behinenak industria eta txikizkako merkataritza dira, baina eraikuntzaren sentimendu negatiboak kalte egiten dio indize globalari. Beste aldetik, zerbitzuek moteltzeko joera leuna erakutsi zuten azken hilekoetan.